DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
DSS2016.EU

# Este fin de semana se celebrarán en San Sebastián las jornadas 'Derechos y deberes transfronterizos: Saltando el Muro de la Vergüenza'

**Se trata del séptimo encuentro de la iniciativa *Embarcada Artivista* organizada por Gernika Gogoratuz, el Museo de la Paz de Gernika y San Sebastián 2016.**

**Las jornadas tendrán lugar los próximos 20 y 21 de mayo en la jaima *Tuiza* del Museo San Telmo y en la Plaza Zuloaga de San Sebastián.**

Los próximos 20 y 21 de mayo tendrán lugar en San Sebastián las jornadas *Derechos y deberes transfronterizos: Saltando el Muro de la Vergüenza*, enmarcadas en el proyecto de Gernika Gogoratuz, el Museo de la Paz de Gernika y San Sebastián 2016 *Embarcada artivista.*

Durante este séptimo encuentro, la navegación será a través del desierto. Poniendo el Círculo de Diálogo y el Laboratorio *CreActivo* que lo componen al servicio del pueblo saharaui.

El viernes 20 se ofrecerá la oportunidad de participar en un círculo de diálogo con cinco referentes del arte y el activismo por los derechos del Sáhara Occidental: el artista Federico Guzmán, el poeta Limam Boicha, la madre-coraje Takbar Haddi y las activistas Hayat Erguibi y Yamila Dambar, ambas participantes del campamento de resistencia Gdeim Izik, precursor de la Primavera Árabe.

En este Círculo se hablará de la "Intifada del Arte", una forma de resistencia no violenta a la opresión del ocupante por medios culturales. Además de para difundir internacionalmente la causa saharaui y activar y conservar su patrimonio e identidad, el arte sirve para lograr una transformación personal y colectiva; la persona artista trasciende su condición de exiliada, marginada u ocupada y se transforma en co-creadora del destino de su pueblo.

En el Laboratorio *CreActivo* del 21 de mayo se diseñará una performance titulada *La Ruta del Sáhara Occidental*, que será representada por la tarde al público en la plaza Zuloaga. La coreogeografía representará corporal y plásticamente diferentes momentos de la historia saharaui: la colonia; la llamada *Marcha Verde* o invasión marroquí y el exilio a los campamentos de Tinduf. Esta jornada terminará con una Y*eltsa Asaharauia* o velada saharaui.

**Agenda de las jornadas:**

***Viernes, 20 de mayo , de 18:00 a 21:00. Tuiza,* Museo San Telmo.**

Círculo de Diálogo *CreActivo* con representantes de los movimientos arriba citados en la jaima *Tuiza* del Museo San Telmo de San Sebastián.

***Sábado, 21 de mayo, de 11:00 a 19:00/ 19:00-21:00/21:00-24:00***

•Primera parte, de 11:00 a 19:00, *Tuiza*, Museo San Telmo.
Laboratorio *CreActivo* en el que se diseñará una performance, una coreogeografía titulada *La Ruta del Sáhara Occidental*.

• Segunda parte, de 19:00 a 21:00, Plaza Zuloaga.
Representación de la *Ruta del Sáhara Occidental*. Sobre un mapa-plaza de grandes dimensiones se representarán corporal y plásticamente diferentes momentos de la historia saharaui: la colonia; la llamada *Marcha Verde* o invasión marroquí y el exilio a los campamentos de Tinduf. Se hará visible el *Muro de la vergüenza* que divide el territorio y las familias saharauis mediante el campo de minas más grande del mundo. Se localizarán el expolio de los recursos naturales y los lugares de discriminación y opresión de la población. Y también se hará manifiesta la intifada pacífica, la resistencia saharaui desde el Campamento de Gdeim Izik; se situarán sobre el territorio las zonas en liberación y las zonas liberadas. Se completará el mapa con símbolos y elementos de la cultura y tradición saharauis.

• Tercera parte, de 21:00 a 24:00, Plaza Zuloaga.
Celebración de una Y*eltsa Asaharauia*, una velada saharaui. Se siluetará el mapa-plaza con velas y, acompañado del relato de leyendas, de lectura de poesía y de canto, se tomará té y se velará por las y los presos de conciencia del mundo.

Esta iniciativa se enmarca en *Embarcada artivista*, que se concibe como un proceso de investigación, participación y exposición en torno al abordaje de las urgencias sociales de nuestro tiempo a través del arte. El proyecto, que nace a la luz del Faro de la paz de San Sebastián 2016, el Centro de Investigación para la Paz Gernika Gogoratuz y el Museo de la Paz de Gernika, consiste en ocho encuentros y un fórum internacional, además de otras actividades complementarias, distribuidas a lo largo de 2016.

La participación es gratuita, previa inscripción:
https://laembarcadaartivista.wordpress.com/izenematea/

Más información en el teléfono 688 899 950 y en el email
alexcarrascosa@gernikagogoratuz.org

## ARTISTAS Y ACTIVISTAS PARTICIPANTES:

### Federico Guzmán

Artista y activista andaluz, colaborador de Artifariti, los Encuentros Internacionales de Arte y Derechos Humanos en el Sáhara Occidental y de la Escuela Saharaui de Artes. Algunos proyectos recientes han sido Ayuda humanitaria al Primer Mundo, *Nuit Blanche* de Toronto (con Cambalache), *La canción del tomaco*, MEIAC Badajoz; *El otro en desafío*, Universidad del Atlántico, Barranquilla. Ha publicado textos como *The Art of Sahrawi Cooking*, en el marco de dOCUMENTA, *Kassel* (con Robin Kahn), o para el libro *Destrucción y construcción del territorio IV*, de la Universidad Complutense, Madrid. Su proyecto actual es *Tuiza*, la jaima que está en el Museo San Telmo de San Sebastián dentro del programa *Entre Arenas*.

### Limam Boicha

Poeta nacido en el Sáhara Occidental en 1972. Con la invasión de Marruecos del territorio saharaui en 1975, Limam, como muchos otros jóvenes, es acogido en Cuba, donde se licencia en Periodismo en la Universidad de Oriente. Tras 13 años allá, regresa a los campamentos de refugiados y trabaja durante cuatro años en la Radio Nacional Saharaui. Actualmente reside en España. Autor de los libros *Los versos de la madera* (2004) y *Ritos de Jaima* (2012); y miembro del grupo poético Generación de la Amistad Saharaui y de la Asociación Bubisher de Escritores/as por el Sáhara.

### Hayat Rguibi

Activista saharaui de derechos humanos, residente en España. Encarcelada y torturada en la Cárcel Negra de El Aaiún. Participante en la protesta pacífica de Gdeim Izik, es activa militante en lucha por la autodeterminación del Sáhara Occidental.
Miembro del Foro Futuro de las Mujeres Saharauis en la zona ocupada; miembro de Equipe Media, primera organización de periodismo de resistencia fundada en el Sáhara Occidental, y colaboradora del Festival Internacional de Cine del Sáhara (FiSahara), así como de la Casa Sáhara Aminetu Haidar en Sevilla.

### Yamila Dambar

Activista de El Aaiún ocupado que ha convertido su propósito en denunciar ante el mundo la barbarie marroquí y exigir el fin de la ocupación de su país. Su hermano Said Dambar murió a manos de la policía marroquí en diciembre de 2010. Con un tiro en la frente, Said fue depositado durante diecisiete meses en un congelador de la morgue de El Aaiún denegándose a la familia el permiso para una autopsia imparcial. Finalmente el cuerpo de Said fue enterrado apresuradamente en enero de 2012, sin la presencia de sus familiares. Sus familiares y la comunidad internacional siguen pidiendo justicia.

### Takbar Haddi

"Madre coraje" del joven asesinado Haidala Mohamed Lamín (21 años). Haidala fue maltratado, no fue atendido en los hospitales marroquíes y, como consecuencia de ello, falleció. Hace un año, el 15 de mayo 2015, Takbar comenzó una huelga de hambre indefinida y continúa hoy su activismo contra la injusticia con el apoyo de cientos de personas que se han sumado a su huelga de hambre en cadena.

# Asteburu honetan 'Mugarteko eskubide eta ardurak: Lotsaren Hesiaren gainetik jauzika' jardunaldiak ospatuko dira Donostian

- **Gernika Gogoratuz-ek, Gernikako Bakearen Museoak eta Donostia 2016k antolatutako *Itsasoratze artibista: arterapia eta artibismoa* ekimenaren zazpigarren topaketa izango da.**
- **Jardunaldiak datozen maiatzaren 20 eta 21ean ospatuko dira San Telmo Museoan dagoen *Tuiza* jaiman eta Zuloaga enparantzan.**

Datozen maiatzaren 20 eta 21ean *Mugarteko eskubide eta ardurak: Lotsaren Hesiaren gainetik jauzika* jardunaldiak ospatuko dira San Telmo Museoko *Tuiza* jaiman eta Zuloaga enparantzan, Gernika Gogoratuz-ek, Gernikako Bakearen Museoak eta Donostia 2016k antolatutako *Itsasoratze artibista* proiektuaren baitan.

*Itsasoratze Artibista*ren zazpigarren edizioan basamortuan barneratuko dira, Elkarrizketa Biribila eta Laborategi KreAktiboa Saharako herriaren zerbitzura ipiniz.

Ostiralean, hilaren 20ean, parte-hartzaileak artearen eta aktibismo sortzailearen bost ordezkaririekin elkartuko dira Elkarrizketa Biribilean: Federico Guzmán artista, Limam Boicha olerkaria, Takbar Haddiama kuraia, eta Hayat Rguibi eta Yamila Dambar aktibistak, Arabiar Udaberriaren aitzindari den Gdeim Izik erresistentziazko kanpamentuan parte hartu zutenak.Biribil honetan "Artearen Intifadaz" hitz egingo da, okupatzailearen zapalketari aurre egiteko indarkeriabako tresna bezala ulertuta. Artea, saharar kausa nazioarteko mailara hedatzeko izateaz aparte, eraldatze pertsonal eta kolektiborako bidea baita. Artistak erbesteratu, baztertu edo okupatuaren egoera gainditzen du, eta bere herriaren patuaren sortzailekide bilakatzen da.

Maiatzaren 21ean ospatuko den Laborategi KreAktiboan *Mendebaldeko Sahararen Ibilbidea* izeneko performance bat diseinatuko da, arratsaldean Zuloaga enparantzan jendaurrean irudikatuko dena. Koreografia honetan gorputz eta plastikaren bidez saharar historiaren hainbat pasarte izango dira ikusgai: koloniaren garaia; *Ibilaldi Berdea* delakoa edo marokoar inbasioa; Tindufeko eremuetaranzko erbestea. *Yeltsa Asaharauia* edo saharar beila batekin emango zaio amaiera jardunaldi honi.

Topaketen egitaraua:

**Maiatzak 20, ostirala, 18:00-21:00, *Tuiza*, San Telmo Museoa.**

Elkarrizketa borobil kreaKtiboa goian aipatutako mugimenduen ordezkariekin, San Telmo Museoan dagoen *Tuiza* jaiman.

***Maiatzak 21, larunbata, 11:00-19:00/19:00-21:00/21:00-24:00***

- Lehengo zatia, 11:00etatik 19:00ak arte, *Tuizan*, San Telmo Museoan. Laborategi *KreAktiboa*. Horretan, performance bat diseinatuko da, koreogeografia bat hain zuzen, *Mendebaldeko Sahararen Ibilbidea* izenekoa.

- Bigarren zatia, 19:00etatik 21:00ak arte, Zuloaga enparantzan. *Mendebaldeko Sahararen Ibilbidea*ren antzezpena. Neurri handiko mapa-plaza baten gainean, gorputz eta plastikaren bidez saharar historiaren hainbat pasarte izango dira ikusgai: koloniaren garaia; *Ibilaldi Berdea* delakoa edo marokoar inbasioa; Tindufeko eremuetaranzko erbestea. *Lotsaren Hesia* ipiniko da agerian, saharar lurralde eta senideak banatu egiten dituen Munduko mina-eremurik zabalena. Baliabide naturalen espoliazioa eta populazioaren diskriminazio eta zapalketaren lekuak bistaratuko dira. Eta erakutsi ere egingo dira intifada politikoa, Gdeim Izikeko erresistentzia, askapen guneak eta askatutakoak. Saharar kultura eta ohituren elementuekin osatuko da mapa.

- Hirugarren zatia, 21:00etatik 24:00ak arte, Zuloaga enparantzan. *Yeltsa Asaharauia* edo saharar beila. Mapa-plaza kandelekin inguratuko da eta kondaira, olerki eta kantak lagun, tea hartu eta Munduko kontzientziazko presoen aldeko bijilia egingo da.

Ekimen hau *Itsasoratze artibista*ren barruan dago, artibismoa edo artearen bidezko aktibismo sortzaile eta indarkeriarik gabea ardatz duen ekimena gaur egungo premia sozialei afektibo eta efektiboki ekiteko, ikerkuntza, parte hartzea eta erakusketa direla medio. Proiektua, Donostia2016ren bakearen itsasargiaren, Gernika Gogoratuz Bakearen Aldeko Aztertegiaren eta Gernikako Bakearen Museoaren argipean jaioa, 2016ean zeharko nazioarteko 8 topaketetan eta forum batean gehi beste hainbat ekintza osagaitan datza.

Parte hartzea doakoa da, baina izena eman behar da:
https://laembarcadaartivista.wordpress.com/izenematea/

Informazio gehiago: 688 899 950 zenbakian edo alexcarrascosa@gernikagogoratuz.org emailean.

## Gonbidatutako artista eta aktibistak:

### Federico Guzmán

Andaluziar artista eta aktibista, Artifariti Mendebaldeko Saharako Arte eta Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Topaketen eta Arteen Saharar Eskolaren kolaboratzailea. Arestiko proiektuen artean honakoak daude besteak beste: Lehen Munduari Laguntza Humanitarioa, Torontoko *Nuit Blanche* (Cambalacherekin batera); *Tomacoren kantua*, MEIAC Badajoz; *Bestea Lehian*, Atlantikoko Unibertsitatea, Barranquilla. Zenbait testu argitaratu ditu, hala nola *The Art of Sahrawi Cooking*, Kasseleko *documenta*rako (Robin Kahnekin), edo Madrileko Komplutense Unibertsitatearen *Destrucción y construcción del territorio IV* libururako. Bere azkeneko proiektua *Tuiza* da, Donostiako San Telmo Museoan erakusgai, *Hondar Artean* egitarauaren barruan.

### Limam Boicha

Olerkaria. Mendabaldeko Saharan 1972an jaioa. Marokok saharar lurraldea inbaditu zuenenan 1975ean, Limam, beste hainbat gazte bezalaxe, Kuban babesten dute; bertan Kazetaritzan lizentziatu egiten da Ekialdeko Unibertsitatean. Irlan 13 urte eman ostean, errefuxiatuen eremuetara bueltatzen da eta lau urtetan Saharar Irrati Nazionalean lan egiten du. Egun Espainian bizi da. *Los versos de la madera* (2004) eta *Ritos de jaima* (2012) liburuen egilea eta Saharar Adiskidetasunaren Belaunaldia poesia taldeko zein Bubisher Sahararen aldeko Idazleen Elkarteko kidea da.

### Hayat Rguibi

Giza eskubideen aldeko saharar aktibista, Espainian bizi dena. Aaiuneko Espetxe Beltzean presoa eta torturatu izana. Gdeim Izikeko protestaren partaide, Mendebaldeko Sahararen autodeterminazioaren aldeko borrokalari aktiboa da. Okupatutako eremuko Saharar Emakumeen Geroa Foroko kidea; Equipe Media Mendebaldeko Saharan sortutako lehen erresistentziazko kazetarien elkarteko kidea ere; eta FiSahara Saharako Nazioarteko Zinema Jaialdiko zein Sevillako Aminetu Haidar Sahara Etxeko kolaboratzailea.

### Yamila Dambar

Aaiuneko aktibista, marokoar ankerkeria salatzeari eta bere herriaren okupazioaren amaiera exijitzeari ekiten diena. Marokoar poliziak haren neba Said Dambar erail zuen 2010eko abenduan. Kopetan tiro bat zuela, Saiden hilotza Aaiuneko gorputegiko izozkailu batean egon zen 17 hilabete, senideei autopsia inpartzial baterako baimena behin eta berriz ukatzen zitzaien bitartean. Azkenik, Saiden gorpua 2012ko urtarrilan presaka izan zen hobiratua, haren familia bertan egon gabe. Saiden senideek eta nazioarteko komunitateak justizia eskatzen jarraitzen dute.

### Takbar Haddi

Haidala Mohamed Lamin 21 urteko gazte erailaren ama-kuraia. Haidalak tratu txarrak jasan zituen, ez zuten marokoar ospitaleetan zaindu, eta horren ondorioz, hil zen. Duela urtebete, 2015eko maiatzaren 15ean, Takbarrek mugagabeko gose greba bat hasi zuen eta gaur egun jarraitzen du bidegabekeriaren aurkako aktibismoa, bere barauldiarekin ondoz ondo bat egin duten ehunaka pertsonaren laguntzarekin.